(zartu da gaxoa)
aizeak ez gaitu maite
egalak austean
sasoia joatean » — .

Barren-izketa
aizearekin :
onek galde egin
txistu furundarekin ;
errotak erantzun
barrunbearekin
— ale negarrakin —
zein jolas gozoan
munoko lepoan
biok alkarrekin...

Ikusi nuben bein
egi orota
mendiko islan,
— urre gainean
ilun kolorez
goizalde zan ta —
aize errota.
Ez nago — helas !
aztutzekotan.

1955.

ABERRIMIN (Otsalar)

Azkatasun bidea
gurutzez betea.

Ekaizpe batean
nire aurtzaro ;
mendietan anaiak
milaka erio.

— Amatxo, gizonak
guda, zergatik ?
— Erri baten arnasa
iraun nairik.

Kixkaldurik
zeru ta lur.
Etsaiak oinperatu
euskal-ikur.

Espetxean odol,
atzerri itunak ;
etorkizun uxetuak
darabiltz euskaldunak.
Leenak irakatsi.
Barnean txurtua,
gaztediari ager
maita-sua.

Eusko-gogoa
ez da il !
sentz berria
ernai dabil.

Euzkadi'ren izaera
biotzean sumin.
Sendetsi gazteok ,
erria esna dedin !
.. ..

Azkatasun bidea
gurutzez betea.
Aberria, Aberria !
Tori nire bizia.

1954 Euzkadi'ko txoko batetik.